



Urretxu
2013 Abendua
121.alea

KIXO

2.orrian
Mendekotasunaren
inguruko prestazioak
4.orrian
Andoni Lubaki
6.orrian
Gabonak Urretxun
7.orrian
Falta direnak oroituz
8.orrian
Casco Antiguo
13.orrian
Aurrekontuak
14.orrian
Irimo

PARTE
HARTZEAZ
HERRIA
ERAIKIZ

10. orria





Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, adinekoak etxean zaintzeko aukera



{ Eguneroko ohiko ekintzak pertsonen familiakoa ez den eskaintzen du Foru Aldundiak

Bizi esperantza luzatuz doan heinean, mendekotasun bat duten pertsonen euren etxeetan bizi kalitate duinenarekin ahalik eta gehien bizi ahal izatea da gizarte honek duen erronka nagusienetako bat. Espainiar Estatuko Gobernuak dependentsia legean murrizketa handiak egin dituen arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak alor honetan egindako apustuari esker, gipuzkoarrek ez dugu inolako murrizketarik jasango. Are gutxiago, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) delakoa indartuta, dependentsia alorreko laguntzak handitu egin dira urtarrila gerotik.

Prestazio hau, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko langile bat kontratatzeko egiten diren hileroko ordainketa da. Modu honetara, pertsona hauek beraien etxean autonomia handiagorekin eta

KAIXO
UDAL ALDIZKARIA
121.alea

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Gattiken

Erredakzioa: Jon Ormazabal eta Gattiken

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Más información/informazio gehiago:
www.urretxubiziz.com/kaixo



egiteko laguntza behar duten orobait kontratatzeko laguntza

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomiko hau jasotzeko kontratu bat izan behar da mendekotasuna duen pertsonaren eta laguntzaile pertsonalaren edo laguntza pertsonal hori ematen dion enpresaren artean.

Laguntza hauek jasotzeko eskaerak Urretxuko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin daitezke. Orain arte, 37 dira Urretxuko udaletxeko bulegoetan jaso diren eskaerak eta Gipuzkoa osoan ia 600 lanpostu berri sortu dira laguntza hauen baitan urtea hasi zenetik.

Kontratu hauek sinatzerako orduan izan daitezkeen zalantzak argitzeko, kontratatzailearen aldetik zein langilearen aldetik, oso gomendagarria da Bizkaiko Etxe Langileen Elkartearen web orrialdea.

www.ath-ele.com

bizi kalitate duinagoarekin bizi ahal izan dezaten lagundu nahi da. Orain arte, etxeko edo familiako kideen artean banatu izan dira zaintzaren ardurak, profesional baten laguntzak familiako zaintzaileen lan karga arintzen lagun dezake. Bide batez, mendekotasuna duten pertsona hauen zaintzan sortu den ezkutuko enplegua erregulatzen lagundu dezakete prestazio ekonomiko hauek, lanpostu berriak sortuz eta aurretik daudenak erregulatuz.

2013ko urtarrila arte, laguntza hauek mendekotasun handia (III. gradua) zuten herritarrei zeuden mugatua, baina orain mendekotasun larria (II. gradua) duten guztiek eta mendekotasun ertaineko (I. graduko) bigarren mailan baloratuta dauden herritarrek ere jaso ahal izango dituzte.

Mendekotasunaren inguruko prestazioak

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

GRADUA	MAILA	EURO
3	2	833,96
3	1	625,47
2	2	462,181
2	1	401,20
1	2	300

Argazki onenaren bila



{ **Andoni Berriotxo Gabiria (Urretxu, 1982). Gaur egun Sopelan (Bizkaia) bizi da, nahiz eta oraindik ere urretxuar petotzat daukan bere burua.**

“Andoni Lubaki” izenez ezagunagoa, argazkigintzaren munduan. Bera, ordea, ez da argazkilari soil: “fotokazetaria naiz ofizioz, ñabardura hori garrantzitsua da”. Izan ere, argazki bikainak ateratzeaz haratago doa bere jarduna: argazkiak atera, bideoak editatu, artikulua idatzi... betiere munduan zehar bidaiatuz.

Ikasketaz informatika programatzailea da Andoni; argazkilaritza betidanik gustatu izan zaio, ordea. “2003an hastapeneko ikastaro bat egin nuen Gorka Salmeronekin, eta orduan hasi nintzen argazkiak ateratzen, bidaietan-eta. Gero, maila aurreratuagoko ikastaroak egiten jarraitu nuen”. Alor honetan profesionalki jardutearena geroago etorri zen: “iritsi zen momentu bat zeinetan esan nuen aurrera egin behar nuela nire benetako zaletasun honekin. Gutxienez saiatu egin behar nuen. Orduan, Gotzon Aranburuk “Gara” egunkariko kontaktua

eman zidan eta horrelaxe hasi nintzen komunikabideetarako argazkiak ateratzen eta erreportajeak egiten”.

Andoni 2009 urtearen bukaeratik dabil gutxi-gorabehera lan honetan, “alde batetik bestera”, berak dioen moduan. “Ezkontza eta bestelako enkarguetan argazkiak atereaz irabazitakoarekin diru pixka bat aurrezten nuen aldiro kanpora ateratzen nintzen”. Orduetik, Sahara, Argelia, Birmania, Tailandia, Irak, Turkia, Libia, Egipto eta Sirian ibilia da, besteak beste. “Gatazkaren bat dagoen edo egon den tokien bila joaten naiz, gatazkaren ondoren zer dagoen ere interesgarria baita oso”.

Andonik sari oso garrantzitsu bat irabazi berri du orain dela gutxi, Chris Hondros saria, hain zuzen. Atlantan (AEB) fotokazetariaren inguruko ajeztia elkartu eta atal ezberdinetako saridunak (erretratoa saila, kirol saila...) aukeratzen dituzte.

Andonik 2013 urteko gerrako argazkilari onenaren Chris Hondros saria irabazi du. “Futbolean Balon d’Or edo Urrezko Baloia irabaztearen parekoa da”. Saria Andoniren argazki bilduma bati eman zaio; Siriako Alepo hirian ateratako argazkiak dira guztiak.

Horrelako leku eta egoeretan argazki onak ateratzea ez da lan erraza. “batzuetan gaiak zehaztuta daude, zeri buruz hitzegin, baina besteetan gertatzen denaren arabera argazkiak ateratzen ditugu. Egun asko pasa daitezke ezer berezirik gertatu gabe eta derrepente zure begien aurrean zerbait gertatzen da...”. Andonik “Associated Press” argazki ajentziarako “breaking news” edo azken orduko albisteetarako argazkiak ere ateratzen ditu, baina “oso ezberdina da erreportaje bat egitera zoazenean”.

Andonik orain arte AEBko eta Ingalaterrako ajentzia batzuentzat egin izan du lan (Redux eta 4SEE) eta baita AP (Associated Press) ajentziarentzat ere. Orain gutxi, halaber, Bostok ajentzia sortu du Garí Garaialde, Ander Guillenea eta Josu Truebarekin batera. “herrietako ekitaldietan argazkiak ateratzen ibiltzen gara eta horrez gain bakoitzak bere bidea dauka”. Hala ere, beraien ildo ez da “hemengo egunerokotasunari argazkiak ateratzea”. Andonik dioenez “proiektua beste bat da, lanak egiten ditugu eta horiek saldu, eta denon lana batzen da

proiektua egiterakoan”. Eguneroko prentsan agertzen ez diren gaiak jorratzen saiatzen dira Andoni eta bere kideak: “interes handia dagoela ikusi dugu, desjabetzeen gaia lantzen ari gara, mundu mailako inprobisatzaileak, udazken honetan jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusia... Hemengoarekin ez dugu ahaztu nahi, nahiz eta kanporako ere asko saltzen dugun”.

Aurrera begira dituen asmoez galdetuta, “nonbait interesa pizten didan zerbait ikusten badut hara joango naiz; Siriara joatearena, adibidez, lau egunetan erabaki nuen, eta horrela joan nintzen”. Asmo zehatzak ere badauzka, ordea, Andonik, nahiz eta horietako batzuk gauzatzea zail xamarra ikusten duen: “mandeoei buruzko erreportaje bat egin nahiko nuke. Mandeismoa erlijio bat da, eta mandeoei San Joan Bataiatzailean sinesten dute. Desagertzen ari den erlijio bat da, beraiek dira azkeneko gnostikoak. Oso interesgarria iruditzen zait erlijio horri buruzko erreportaje bat egitea, oraindik ere Kristo aurreko kultura mantentzen baitute. Jordania eta Iraken daude. Irakera joatea, ordea, garestia da oso, bertan segurtasuna bermatzea oso garestia baita. Urtebeteko lana litzateke...”. Izan ere, momentu larriren bat edo beste ere igaro izan du Andonik bere jardunean: “bahitu egin ninduten, baina zorionez ez zen ezer gertatu azkenean, sustoa baino ez zen izan. Ahaztu egin nahi dut”.



Testua: Gorka Azkarate / Argazkiak: Andoni Berriotxoa

«Gabon arduratsuagoak»

Gaur egun murgilduta gauden kontsumismo giro honetatik ihes egin nahian, Gabonak beste era batera ulertzeko saiakera egin du udal Gobernuak legegintzaldi hasieratik.

Egun hauek elkarlan, auzolan eta elkarrekin biltzeko garaiak direla ulertuta, herriko txokoak material berrerabilgarriekin apaintzeko hautua egin zen, ordura arteko ereduarekin hautsiz.

Aurretik, kaleko argiak kanpoko enpresa bati alokatzen zitzaizkion eta gastu ekonomikoaz haratago, energia kontsumo ikaragarriak ekartzen zituen sistema honek. Baina helburu ekonomikoa ez zen bakarra, Gabonak herritarrekin partekatzea ere garrantzitsua zela ulertu zuen udal Gobernuak.

Bide horretan, iaz pauso handi bat eman zen eta herriko ikastetxe guztiekin lanketa polita egin zen udako oporren ondoren. Udalak baliabideak jarri zituen eta ikastetxetako irakasleak heziketa berezi bat jaso zuten, ikasitakoa euren eskoletako urmeekin praktikan jarri zezaten. Horretaz gain, herritarrentzako tailer irekiak ere antolatu ziren, arrakasta handiz gainera. Hori ikusita, 2103an ere bide beretik egin dira gauzak.

Hori bai, lanketa berandu xamar hasi da aurten –La Salle, Gainzuri eta Institutoak errepikatu dute– eta ikastetxe batek ezin izan du bere egunerokoa moldatu, nahiz eta proiektuan jarraituko duela esan. Baina gaztetxoez gain, Aterpeko herri-tarrek ere euren ekarpena egin dute eta denek egindako apaingarriekin eraikin publikoak apaindu dira. Izugarritzko lana egin dute denek. ZORIONAK.

Hala ere, gauza jakina da oraindik herriko txoko guztietara heltzerik ez dela izan, baina material berrerabilgarriarekin egindako apaingarriak herriaren dira eta urtez-urte gero eta baliabide gehiago izango ditugu.

Gabonek udal Gobernuarentzat argi batzuen distria baina mezu sakonagoa dutelako. Apaingarririk gabe geratu diren auzoetako pazientzia eskatzea besterik ez dago. Haurrek arto ikusten dituzte beraiek landuko apaingarriak herriko kaleetan eta poz hori da zabaldu nahi dugun mezua.

* Gure artean behar zaituztegelako

Gainean ditugun egun berezi hauetan, inoiz baino gogor eta hotzagoak egiten dira gure etxeetan hutsik geratzen diren aukiak.



Hutsuneak, penak negarrak eta saminak, ordea, urte guztian zehar luzatzen dira eta, urraketa hauekin amaitu behar dela sinetsita, urtarrilean Bilbon izan zen manifestazio kolosalaren ostean sortu zen erauntsiaren indarrak, urtean zehar betetzen saiatu den zenbait konpromiso hartu zituen Urretxuko udal Gobernuak, Euskal Preso Politikoen eskubideen defentsan.

— **Herriko presoekin bisita erronda ofizialari ekitea. (2013an bi bisita egin dira)**

— **Herriko presoek udal erabakiak eta udalak argitaratu edo ateratako materialaren informazioa ematea.**

— **Hilabeteko azken ostiraletan Herrirak deitutako elkarretaratzeetan parte hartzea modu ofizialean.**

— **Herriko presoekin senideekin harreman sarea mantendu, egoeraren berri zuzena izateko.**

— **Euskal Herritik kanpo dauden presoek bisitatzeko diru-laguntza oinarriak adostu eta laguntzak eman.**

— **Ettxerat eta Herrira elkarteei udal lokalak uztea beraien bilerak edo lanak egin ahal izateko.**

12 hilabeteetako poz eta negarren ostean, denon indarrak beharrezkoak izaten jarraitzen dute eta urtarrilaren 11an, tantaz-tanta, itsaso erraldoi bat osatuko dugu Bilboko kaleetan, gure artean behar zaituztegelako.

* Un foro revitalizante para el Casco Viejo de Urretxu

El pasado día 4 de diciembre echó a andar la mesa del comercio y la hostelería del Casco Viejo de Urretxu, un foro creado a partir de la constatación del lento declive del barrio durante los últimos años, lo que ha generado la reducción de la vitalidad en la calle y, en consecuencia, del comercio y la hostelería.

La iniciativa partió de los comerciantes y hosteleros de la zona que, durante el año 2013 se han puesto en contacto con el Ayuntamiento para transmitir su preocupación en relación a algunas obras realizadas en el entorno. Pero además de

estas reformas realizadas, a pesar de ser un barrio que no se ha deteriorado como espacio para vivir, el Casco Antiguo de Urretxu sí que ha perdido interés como zona de comercio y de esparcimiento. Así lo atestigua el cierre de múltiples negocios durante los últimos dos decenios.

Es en este contexto donde se decide emprender un proceso de estudio y propuesta conjunta de iniciativas entre comerciantes, hosteleros y administración local para la revitalización del barrio, partiendo del comercio y la hostelería. En una primera



etapa se propuso a los agentes implicados un proceso que lleve a entender las razones de lo ocurrido para, en una segunda instancia, empezar a elaborar líneas de actuación, y finalmente proponer el modo en el que se pueden desarrollar estas líneas.

Las dos primeras reuniones congregaron a la práctica totalidad de hosteleros y comerciantes de las calles Iparragirre y Jauregi. Urretxu Optika, Mendizabal harategia, Ezkurra kafetegia, Florida taberna, Okindegia, Jai Alai jatetxea, Oleta iturgintza, Navarro jatetxea, Olga ileapaindegia, Euskalduna fasil eta mineralak y Goiko kale taberna. Tras un interesante debate, se diagnosticaron varios factores que han incidido negativamente en la vida del barrio.

- + Decisiones relativas al tráfico viario
- + Traslado de eventos masivos a otras zonas del pueblo
- + Dificultades en el suministro

- + Cambio de hábitos de consumo
- + Nuevos estilos de venta
- + Crecimiento de Urretxu hacia lugares lejanos al barrio
- + Imagen del barrio, con locales vacíos
- + Poca luminosidad
- + Cambio de los accesos al Ayuntamiento

Pero, del mismo modo, también se dejó constancia de los potenciales que presenta el barrio, que cuenta con una plaza muy amplia, alberga al Ayuntamiento y el Kultur Etxea y, sobre todo, sigue siendo el corazón de Urretxu y, por lo tanto, un lugar de referencia para toda la ciudadanía. Además, el propio proceso emprendido y las sinergias creadas también suponen un espaldarazo para la revitalización de la zona. Eskerrik asko a todos/as los/las participantes.



Parte hartze dinamikak indartsu, hasi eta urtebetera



Kultura:

Herri-Opera egitamoak aurrera segitzen du. Urretxu-Zumarragako kultur ondarea balioan jartzea da helburu nagusia eta artista disziplina aniztasunak bat egingo dute 2014ko ekainaren 21ean Urretxuko Gernikako Arbola plazako taula gainean. Hasiera batetan Kultur eragile guztien bilgune zibernetikoa Urretxu-Zumarragako Artea izeneko sare sozialeko plataforma bidez egin da baina dagoeneko hainbat bilera egin dira proiektua lurreratzeko. Azkena joan den abenduaren 21ean Gorka Hermosaren gidari-tzapean egitarauaren aurkezpena egin zen, HERRI

OPERAren sinopsia (Jon Plazaola), pieza musikal bakoitzeko arduradunak (14) eta horri dagokion antolakuntza guztia azaldu eta koordinatuz.

Ingurumena:

Hamar partaide finko inguru ditu ingurumen arloko lan-taldeak.

Beren jarduna hiru esparru nagusitan ikusten dute: airearen kalitatearen inguruko informazioa zabalitzean, Erreka Egunaren inguruan uraren inguruko ezagutza eta sentsibilitatea zabaltzean, eta hondakinen arazoaren inguruan informazioa zabaldu eta proiektuak gauzatzean (konpostajea, bilketa eta abar). Erreka eguna egin zen eta balantzea positiboa izan da, jende asko mugitu baitu. Zumarragako Udalak ere interesa adierazi du parte hartzeko.

Aurrekontuetarako ekitaldi eta asmo hauek aurrera atera ahal izateko proposamen bat egin zaio Udalari.

Mahai soziala:

Taldeak bi bilera egin ditu dagoeneko. Herriko egoera sozialaren gaineko ikuspegia lantzen aritu dira, besteak beste arazoak eta bitartekoak aztertuz: publikoak zein elkarte sozialak. Aurrerago herritik landu daitezkeen erantzunak eta soluzioak planteatzeko aurrekaria da hau. Hamabost taldekide inguru daude.

Baserritarrak:

Bertatik Bertara proiektuaren ildotik dihardute lanean. Aldi berean, herriko baserritarren bilguneari ere hauspoa eman nahi zaio, eta zenbait erabaki eta informazio baserritar guztiekin partekatzeko zubiak eraiki nahi dira. Bilera orokor bat egin zen neguan eta irailean beste bat egiteko asmoa dute.

Auzoak:

Udan urteko egitasmoen jarraipena eta hobekuntzak egin dira. Urrian zehar, berriz, Auzobusaren balorazioa egin da auzoetan egindako bileren bidez, eta baita herritarrekin eginiko batzar orokor baten bidez ere.

Aurrekontuei dagokienez, auzotarrekin datorren ur-tarrilerara arte ez da egingo bilerarik. Horren arrazoiak hiru dira:

- Taldeen batzordea elkartu nahi da urtebeteko ba-lantzea egin, eta auzo bileretan eduki berriak sartzeko.

- Urtea amaituta egon behar da 2013rako egin beharrekoak bukatzeko denbora izateko.

- Aurrekontuetan auzoetarako diru-poltsa bana jartzea da proposamena, eta diru-poltsa hori zertan gastatu aurrekontuak onartu ondoren erabakiko da, bizilagunekin hitz eginda.

Auzo batzordeak honakoak aztertuko ditu:

- Auzoetatik planteatutako ekintzak nola gauzatu daitezkeen

- Auzo bizitzan eragina izan dezaketen faktoreak zein diren.

Berdintasuna:

2014. urtean ere Jabekuntza Eskolako tailerrak izango ditugu, apirilean hasiko dira eta maiatzean bukatuko dira, uda eta gero, berriro ere jarraituko dugu tailerrekin. Aurten, hurrengo gaiak landuko ditugu:

Ekonomia feministaren inguruan, emakumeen ekintza bultzatuko dugu, egitasmo ekonomiko ezberdinekin, denbora bankuak, truke sareak, etab.

Queer Teoriaren inguruan ere hausnartuko dugu, giza mugimenduak eta teoriak astindu dituen feminismoaren ildo kritiko berritzailea.

Emakumeon zaintza lanei ere emango diegu denbora.

Otsailean xehetasun guztiekin aterako dugu gure programa, eta Urola Garaiko Berdintasun Blogean ere zintzilikatuko dugu informazio guztia.

Harremanetarako:

jabekuntzaeskola@gmail.com / 943 72 58 29

Euskalgintza:

Lan taldeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ziklo amaierarekin eta berriaren hasierarekin bat egin du. Taldeetan 16 lagun inguru ari dira parte hartzen, euskalgintzako, ikastetxeetako eta udaletxeetako ordezkariak batuta.

Urretxun hilero egiten dituzte bilerak.

Finkatu zituzten lehentasunezko arloetatik ekintza plana diseinatu da, eta inplikatuekin kontrastatzen ari dira. Horrez gain Euskaraz Bizi Nahi Dut lasterketa egin da. Taldeak aurrekontuetarako proposamena landu du, ekitaldi hauek aurrera atera ahal izateako.



2013an sektoreetako taldeek dinamika propioa garatzen jardun dute. Taldeak sendotu egin dira, eta autonomia hartu dute. Horrez gain, taldeetatik harantzago, parte hartze estrategia, iraunkor bihurtuko bada, eta eraginkor izango bada, Udalaren egituretan txertatu behar da. Bide horri ekin diogu udazkenean, eta 2014an zehar estrategia eta prozesua sendotze aldera ahalegina egingo da.

Bestalde, herritarren eta udalaren arteko zubi berriei dagokienez, buzoiak eta panelak dira 2013ko berrikuntza nagusiarena. 70 iradokizun baina gehiago jaso ditu udalak, eta hainbat parte hartze dinamiketan ere erabili den kanal berria dira, herritar guztien eskura daudenak. Buzoiei urretxubiziz.com webguneko posta birtuala gehitu behar zaie, Urretxuko parte hartze dinamiketan erreferentzia bilakatzen ari den webgunea.

Jarraitu bilakaera eta ekarpenak egiteko:

<http://urretxubiziz.com>



Participación y presupuestos municipales, una nueva vuelta de tuerca

Parte hartze prozesu iraunkorretan, eta Urretxukoak hala izan nahi du, aurrekontuen ueña mugarri garrantzitsua izan ohi da. Zergatik hau? Aurrekontuetan bitarteko publikoak banatzeko modua adierazten delako. Logikoa da jarduera publikoan herritarrak inplikatzeko baldin bada, aurrekontuetan ere inplikazio hau lortzen saiatzea. Politika egiteko modu berri bati erantzuten dio jardun honek.

Urretxuren kasuan, parte hartzea aipatzean aurrekontuen gorabeherak baino gehiago aipatzen da: sektore bakoitzak bere burua indartzea eta herri eragile modura antolatzea da bilatzen dena, eta aurrekontuak zeregin horretan zatitxo bat dira: garrantzitsua bai, baina ez bakarra.

Iaz, aurrekontuei zegokienez, auzoetatik etorri ziren eskari gehienak. Eskari hauetako asko ez dira aurrekontu ziklo bakarrekoak, hau da, urtebete baino denbora gehiago behar da berauek gauzatzeko, eta horregatik 2014an ere horietako gai batzuk jasoko dira, duela urtebete planeatutakoak. Aurrekontuen proposamena abenduko osoko bilkurara eramango bada ere, auzoetan egingo diren lanak ez dira hor erabakiko. Proposamenean auzoetarako diru poltsa bat gorde da, iaz planteatutakoak gauzatzeko eta baita behar berriei erantzuteko ere balioko duena. Diru kantitate horren zati bat bilakaera luzeko proiektuetarako izango da (iaztik zetoztenentzat), eta beste zati bat, aurrekontuak onartzen badira, auzotarrekin erabakiko da nola banatu urtarrean zehar egingo diren bileretan. Bilera hauek, iazko lanen gaineko jarraipena egiteko ere balioko dute.

«Azken hamarkadetako hirigintza arrotza bihurtu da hiriak erabili eta bizi ditugunentzako»



Urretxurako proposamenak egiteko ofizialki 41 taldek eman zuten izena eta epe amaieran 32 arkitekto gazteren taldeek aurkeztu zuten bere proiektua.

Iñaki Mendizabal eta Ibon Salaberria

Urretxuko Udaleko arkitektoa eta Irimo PH prozesuko koordinatzailea

- Ze puntutan aurkitzen da Irimoko parte hartze prozesua?

Iaz eman zitzaion hasera parte hartze prozesuari. Lehenbizi hitzaldi informatiboak antolatu ziren eta urtarrilean burutu zen partaidetza prozesuko emaitzetan oinarriturik talde eragile bat sortu da. Talde honek partaidetza sarea osatzen, zabaltzen eta egonkortzen dihardu lanean. Paraleloki, Europan lehiaketako proiektu irabazleak publikatu ditu antolakuntza europarrak. Orain, Urretxun irabazi duen proiektua aztertzeko eta ezagutarazteko lana egingo da talde eragilearekin eta honen ildotik sortzen doan partaidetza sarearekin.

- Zein da azken prozesu honen helburua?

Prozesu guzti honen helburua, Urretxuko zonalde honek hirigintza mailan zekarren gatazkarekin bukatzea da. Gaur egun, "ruina" bezala ikusten den eremu honetako egoera desblokeatzea eta benetan, denona izango den proiektua aurrera eramatea da helburua, denon artean.

Hausnarketa orokorrago eta sakonago bat egiten badugu, azken hamarkadetako hirigintza arrotz bihurtu da hiriak erabili eta bizi ditugunentzako. Berriz ere komunitate esperientzia aldarrikatzen da herri eta hirien transformakuntza prozesuetan. Bizitza oinarri duen hirigintza moldakor eta irekia du helburu prozesuak.

- Europan proiektuan onartu dute Irimoko prozesua. Zer eman du? zein pausu jarraitu dituzue? zertarako balio izan du?

“Europan” Europa mailako erakundea da, arkitekto gazteek osatua eta hausnarketa arkitektoniko eta urbanistikoa sustatzeko helburua duena. Partehartze prozesua abiatu ondoren, Europan lehiaketaren bi urte hauetako gaia “Hiri Moldakorra” zela ikusi genuen, prozesu guzti honen helburuetako bat zena. Urretxuko kasuan, hirigintza berri bat egiteko proposamena egin genuen eta onartua izan zen. Ondorioz, Urretxuko prozesuaren ordezkariak Europako foroetan eta debateetan hartu da parte, herri partaidetzaren garrantzia adieraziz eta horrekin batera, nazioarte mailan antolatutako lehiaketa batean parte hartuz, emaitza bezala saritutako proiektu batzuk lortuz.

- Zer proposatzen dute? Ze aukera mahaigain-eratu dira?

Aurretik esan bezala, hirigintza egiteko beste modu bat proposatzen da. Beraz, burutik kendu behar dira orain artean hain ezagun egin diren proiektu megalitiko eta amaituak, ikusi den bezala porrotera bideratuta baitaude. Aurkeztutako proiektu gehienak estrategiak proposatzen dituzte, egitura moldakor bat aurrera atera ahal izateko bideak irekiz, eraikinen formetan hainbeste erreparatu gabe. Proposamen urbanistikoak dira, baina ekintza formalen gauzatzea eta erabileren garapena herritarren sustapenean oinarritzen dituztenak. Proiektu irekiak dira, hainbat aukera jasotzeko ahalmenarekin.

- Nola baloratzen du udalak Europan eginiko bide hau?

Urretxurentzat “Europan” oso emankorra izan da. Europa osoko proposamenak jasotzeko aukera ireki du, eta horrez gain, epaimahaiak Urretxuko zonaldeari loturiko bost proiektu aipatu ditu (garailea, bigarren saria eta hiru aipamen berezi). Lehiaketaren

prozesuko foroetan eta debateetan oso aberasgarriak izan diren Europako hainbat herrialdeetako proposamenak jaso dira, eta beraiei ere Urretxuren eta bertan hasitako prozesuaren berri eman zaie. Azkenik, ez dira ahaztu behar prozesu guzti honen baitan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ematen ari den elkarlana eta Eusko Jaurlaritzarekin izan diren kontaktuak.

- Jarraipenik izango al du oraindik?

“Europan”i dagokionean, lehiaketaren emaitzak publikatu berri dira eta urtarillaren 29an lehen kontaktu ofiziala izango da talde irabazlearekin, beraien proposamena prozesu honetan osatzen eta aztertzen nola hasi daiteken ikusteko. Partaidetzaren baitan erabakiko da zertan gauzatzen den arkitekto taldearen lana.

- Europan nola ikusi dute Irimoko proiektu hau?

Urretxun aurrera doan prozesuak jakin-mina sortu du. Alde batetik, Gipuzkoa mailan estrategikotzak definitu du Aldundiak, ez bakarrik Irimoko kasuak izan dezakeen eskualde mailako potentzialagatik, baizik eta probintzia mailan izan daitezkeen horrelako hainbat kasuetarako erantzuna eman dezakeen eredu delako. Europa mailan, parte hartu den foro eta bileretan Urretxuko kasua ahoz aho ibili da, bide berria zabaltzen duen adibide gisa.

- Udalak zertarako erabili nahiko luke Irimo?

Irimo erabilgarria eta erabilia izatea da garrantzitsua. Herrian oinarrituriko hirigintza berri bat proposatzen da eta ondorioz, herriaren beharrei aurre egiteko erabili beharko da, herriak berak, jabeek, Udalak, adostasunean harturiko erabakien arabera. Ez da alde aurretik definituko erabilerarik, momentuko beharrei aurre egiteko malgutasuna izan dezan. Orena hainbat erabilera izatea litzateke, industrial, komertziala, kulturala, aisialdiari zuzendua,... Denak jasotzeko ahalmena izan beharko luke, eta guzti hauek elkarrekin gauzatuz gero, gauzak ondo egin direnaren seinale.

Asteburuetan, Santa Barbara aterpetxean, bizi ezazu...

Abentura berri bat!

Etxekoekin,
kuadrilarekin,
lagunartean,
etorri elkarrekin
asteburupasa,
abenturaz eta
naturaz gozatzera!

Ven con la familia,
amigos o cuadrila
a pasar un fin de semana
lleno de aventuras
y emociones

- Eskualdeko museoak bisitatuz
- Sukaidaritza tailerra
- Eskulan tailerra
- Izarrei begira
- Gaubel jolas partehartzailoak
- Sendabelar ikastaroa
- Mendi ibilaldi didaktikoak
- Abentura jarduerak
- Ipinerrieta jauregiko aurrekarien ahozkoaren bila



"Haur guztiek
bizi beharreko
esperientzia"

Prezioak eta
informazioa:

☎ 443 72 33 87

📧 aterpetxea@urola.net

📍 Urola Garaia

📱 "Santa Barbara aterpetxea"

Santa
Barbara